



“ORIXE” OREXA'N OMENDUA (1888-1988)

Ederra egiz ifloren naia egitea, bai gogoz eta bai gogo ezik. Or nire jokabidea. Oraintsu, “Orixe”-ren omenez Iruña'n itzaldi bat egin ondoren, onuntz gentozala, Mugiro gaiñez, ni lagundu nindun Xabier Azurmendi'k, abenduaren 6'an aita Lino ta biok, Oresa'n egoteko eskatu eustan. Nik, ba, ezin itxi eskari ori egi biurtu barik.

Eta esandako egun orretan, Oresa'n jai apartekoa ospatzen zala-ta, arako bidea artu genduan, naikoa goizetik. Aurreko egunean iragarri neutson Akesolo'ri neukan asmoa: Goiz samar etorri zeitela Begoña'tik Zornotza'ra, eta emendik berebillez Lemoa'n bizi diran Demetrio Aierbe ta Libe Ortuzar, andra-gizonak eroango ginduezala Oresa'ra. Oстера egokia zala neritxon.

Naiz-ta zeozer belu, Durango, Elorrio, Bergara, Zumarraga, Beasain ta Tolosa zear, emen Iruña'rako bideari ekin, Lizartza'n ezkerretik artu ta Oresa'n gengoan amaika-amaiketan; eleiz-aurreko zurubiz gora giñoiazala, torreko kanpaia otsean eta mezea sartzen; eta gu, lotsor, altarako mezatan parte artzeko asmoz joan giñan arren, enparau eliztarren artean geratu gintzazan. Eta meza ostean, guk be altaran Setien gotzain eta beste amaika apaizakaz batera parte artzea nai eban J. M. Aranalde'k, bota eustan: “Mezea sartuta egonagaitik, zelan etzarie altarara etorri?” Nik erantzun: “Lotsa giñan”. Arek guri: “Leen uste neban nik prailleak ez ebela lotsarik ezagutzen, baiña ba-dakust orain lotsor dirana”. Praille ta apaizok, beraz, ba-dakizue urrengorako: mezea asirik egon arren, jo aurrera.

Oresa erriak, “Orixe” bertako seme kutunari, onen jaiotzaren mende-urrenez, eleiz-opari bioztia eskifni eutson abenduaren 6'an. Eleiz dotore apaiña. argiz ta lorez kuin-kuin, Euskalerrri osotik ara eldutakoz beterik; kanpoan otz, barruan arimen biotz-sua; altaran Setien gotzaiña, amaika apaiz eta praillek koroï egifnik, euron artean J. M. Aranalde, “Orixe”-ren loba, Aita Mauro beneditarra, J. M. Lekuona, Uitzzi'ko txauburua, eta gaiñerakoak. Altarakoak eta Donostia'ko “Aitor” ikastolako neska-mutillak, ederto abestu zituen mezako kantua, ots, “Goazen elkarturik”, “Aintza, Zuri”, “Sinisten dut, Jauna”, “Santu, Santu”, “Pakearen abestia”, “Eskerrik asko, Jauna”, eta beste au:

“Zatozkida, goi-arnasa;
eizu nerekin lan,
Erri baten arnasa
mamitu dezadan.

Geroak esan beza:
“Erri bat izan zan”,
edo-ta ats emaiogun
ontan iraun dezan”.

Gazte ta zar guztiok erne. Gotzain jaunak, irakurgai ta ebanjelio ostean, “Orixe” goratu eban bere omilian, aren irudi prestua gogoratuz eta aren liburu bikaiñak

(“Meza-bezperak”, “Salmuak”, “Jainkoaren billa” ta “Barne-muinetan”) eredutzat jarri; aren fedea, aren erri-maitasuna ta Jainkoagana beroa etziran kaskarrak.

Biotz-zirrara egin eben baita jentearen artean, eskintza asikeran erriarrak altarera eroan ebazan opari berezi-bereziak: ogi-barazki ta bar, otzara polit batean, idazle-luma ta “Euskaldunak”. Mezeari betetasuna emotearren, eta “Orixe”-k bizi-bizi opa izaten eban lez, bost apaizek emonda Jaunartze ixil-beroa, ainbeste kantuz gozatu-ta.

Jainkoari ta “Orixe”-ri eskiñitako gogo-opari au amaitutakoan, kantu saioa barriro be. Alkar agurtze ta txerak, esku-muiñak, bizkar zaplada maitekorrak, eta, zelan ez? eleiz-osteko kanposantuan, Polloe’tik oraintsu aldaturiko “Orixe”-n azurrak gaur datzan illobia ikuskatzea. Onetan ziardugula, inguruko laiño baltzak pillotu ta euri-zaparrada galanta gaiñ etorri jakun; eta zerbait oizko ez dana jazoten danean, oraingoan lez, bakotxak adierazo oi dau bere eritxia, baita aztruetan fede gitxi dabenak be. Dana dala, “Orixe”-ren illobi aldatu aren egon giñanok, andik alde egitean, onako zerbait erabilli genduan gogoan eta miñfean: “Zer da au?” “Zergaitik ain zaparrada gordiña?” “Kezkaz ete dago “Orixe”?” “Ez al dabiltz ondo arekin?” Jonas eroian ontzia gogoratzu, “nor ete dogu pekatari?” Alamentu onek jota baztertu giñan andik.

Gero, euri-ixuria pizkat eztiitu zala, eleizea, udaletxea ta “Orixe”-ren jaiot-etxea bertan dirala, leku agiri ta aukerakoan —geroago, jakiña, mota askotako lora pitxiz apaintzeko danean—, txistularien soñu zoliz eta jentez beteago eziñik, amabi’k “Orixe”-ri eskiñi eutson oroigailu ederra. Oresa ta Uitzu bitartean aurkitzen dan Espuru, “Orixe”-k sarri aitatura begira dago.

Ortara orduko bertako alkateak itzaldi labur bat irakurri euskun, “Orixe” ta beronen lana goretsi ta txalotuaz; emen zan entzule Oresa osoa, Uitzirekin; emen Setien gotzaiña, praille ta abadeakaz; emen Gasteiz-ko kultur-agintariak —Joseba Arregi, Imanol Muruaz, Iñaki Zarraoa, Mari Karmen Garmendia, Jose Luis Telleria ta abar.

Azkenez dantzarien ekitaldi ikusgarria Udaletxe aurreko plazan. Aterri zan eta bazkal aurretik, Oresa’k ditu gaiñ-berako edertasunez jabetu nairik, an-or gu ibiltari, eta omena ezpan-ertz. “Orixe” lango olerkari batentzat sekulako lekua dozu Oresa, mendi-kukutz zorrotzez, troka barren jas aundikoz, etxe zuriz, solo irripaz, erroi, bela ta arranoz omidua. Emengoxe semea noski, emengoxe izakeradun, emengoxe olerkari... Nun jaio ta zelako giroak eta lurraldeak azitzen lagundu, alako izan oi gara geienik. Ez bizi marmarka “Orixe”-gaitik; bere lurra emona dogu.

Gu ikusmin eta jakinguraz gora ta beera genbiltzala, bertokoai itaunka: “Emengoa gendun “Orixe”, gizaseme errimea”. Eta areik erantzun. “Bai, alaxe da; guk alere ez genion kasu andirik egiten. Zarpail bezala jantzirik genun ikusten; elizko oso. Eta orrela ikustean, “Or gizontxo” esan oi genun”.

Areik ez ekien, gizon aundiak geienez apal-lauak izan oi dirana. Ez daukate astirik dotore jantzita ibilteko, ez jateko, ez itz egiteko, momentu batzuetan ixil-pentsakor ibilteko izan ezik. Irakurri, idatzi, aztertu, ausnartu: liburuak dira bizia iruntsi egiten dautsenak. Eder jakez mendi-bizkartxoak, errekondoan, zugazño ta laiño arteak, euri erauntsiak. Atsegin jakon “Orixe”-ri, ementxe munduratu ez bakarrik, ainbat euskal lan osotu be bai; “Orixe”-k maite eban bere erria.

Ordu bi t’erbietan, bazkaria plaza ondoko errebota barrian. Zenbat ete giñan? Aundi ta txiki, ni zenbaketan ibilli ez nintzan arren, mila ta bosteun bat, or-or, esan zanez. Jateko ugari beroa; bitartean, burrunbada ta abarrots ederra zerion frontoi lepoko sapai itxituan. Baiña ez geuntson jaramon esatekorik egiten, aurrekoaren arduraz.

Polito luzatu gendun jataldia. Erabat esaleak, kantariak eta bertsolariak egin eban eurenak, bata-bestearen leian eta aspertzeko itxura barik. Jose Agirre ta Txomin Garmendia bertsolariak gustora ta abazuri barik laiatu ziran, J. M. Aranalde’k ipiñitako gaia. Garmendia’k ziri ta Agirre’k ziri makiñatxo bat bertso bikain ondu zituen bazkaldarren atsegingarri: gaia, izan be, etzan motela: Garmendia, Berrobi’ko alka-

tea, luzaro mutil zar egona ta oraintsu ezkondua. Polito astin-azo eben berandu ta neskatx gazte lirain batekin alkartua.

Oraindik bere, gauzeari azken-txapela ezin jarririk, Aitor sailaren kantu eresitsu, txistularien soifü ozenak eta dantzarien oin-zaparrada ondoren, azkena emon jakon jaaiari. Seirak eta ogei ziran erriko erlojuan. Agur, beraz, Orexa ta agur "Orixe"-ren Tabor mendi, laifio arrez beteari.

Aita Onaindia

NERETZAT OTE AIZ?

Begiak ezetz, biotzak baietz,
zein izango den nagusi?
Biotzarentzat eder aizena
bi begientzat itsusi.

Begiak baiño zurrangoan den
begirik ez dun biotza:
biotza su den, baiño begiek
gaiñean diten izotza.

"ORIXE"

IRE ITZA

Salatur pillak berritzen ditun
aize gorria sortzean,
nere begiak erneko ditun
ire itza entzutean.

Ilun-ikatzak gorri ipintzen din
arnasarik legunenak:
aurpegi illun au kenduko liken
ire itzik laburrenak.

Erruki dezan aurpegi il otz au
itz arin-arin batekin;
orduan noski argituko den
ire itz biguñarekin.

"ORIXE"